# 'Anteron txaparrotia...'

## Anteroren jeitsierarekin hasiko dira gaur arratsaldean Lekeitioko sanantolinak



ARTXIBOKOA

Kanpandorretik udaletxeraino jeitsiko da gaur Antero sanantolinei hasera emanez.

Herri bakoitzak jaiei hasera emateko modu berezia izaten du, eta Lekeitiok ere badu berea. 1980. urteaz geroztik sanantolinak Anteroren jaitsierarekin hasten dira. Plaza jendez gainezka izaten da txipiroi arrantzale hau noiz helduko zain.

Gaur arratsaldean jada ohitura bikakatutako ekintza errepikatuko da. Lehendabizi Anteroren manikia elizako kanpandorretik udaletxeraino jaitsiko da. Ez da bide samurra. Izan ere 135 metrotako ibilbidea egin beharko baititu maniki-arrantzaleak.

Ondoren agertuko da *benetako* Antero udaletxeko balkoian. Arrantzale otarra karameluz betea duela plazan sartuko da umeen gozamenerako eta helduen zoramenerako.

### Historiadun pertsonaia

Anteroren jeitsierarekin jaiak hastea On Antonio Zamoraren ideia izan zen. Gasteizko Zeledonena ikusi eta gero Lekeition ere antzerako zerbait egin zitekeela konturatu zen.

Horretarako pertsonai bat behar zen, ordea, eta Antero arrantzalea etorri zitzaion burura. Antero gizon xelebre eta ezaguna zen, arrantzalea. Kosme Damian Likona zuen izena. Berak era haren lagun Sinker-ek eman zioten izena Lekeitioko kantu ezagunari. Beraz, *Anteron txaparrotia* entzundakoan heldu da parrandarako ordua.

LEA
Dastategia
Jai Zoriontsuak opa dizkizuegu
Atea, 16 LEKEITIO

Arritxu
TABERNA

Ikaragarrizko martxa
Ondo pasa Eutsi gogor
JO TA SU !!
Apalloa, 1 LEKEITIO

AXA
ASEGURUAK
M. Teresa Elkoro Unamuno
*Jai zoriontsuak igaro !!*
Paskual Abaroa etorb., 11
☎ 94 624 33 96 LEKEITIO

TROPPO
Emakume eta Gizon
Neurri Handiak
Gazte Moda
Buenaventura Zapirain K/, 3
Tel.: 94 624 32 00
48280 LEKEITIO
BIZKAIA

E. ITURRIAGOITIA gozotegia
*Gora Euskadi Euskalduna*
Gomarra 6 LEKEITIO

LEKEITIOKO
HERRI BATASUNA
galarrena
HERRIKO
ELKARTEA
Eta ez ahaztu jai honetan
galarrena herrikotik pasatzea